

ANE HAURDUN DA



© Xabier Galarreta

Kostata, baina azkenean ulertu du hortxe aurrean duen neskato beldur hori hura bera dela. Baina pentsatu duenean: “Jada ez naiz bat, bi baizik”, orduan beldur izatetik izaturik egotera igaro da. Taiugabe diren gauzei buruz arrazoi bat edo beste bilatzeak denbora pasarako balio diezagukeen txotxolokeria galanta baizik ez dela uste genuen gaztaroko egun alkoholetan busti haietan buru-belarri murgilduta bizi ginenekoan. Baina egun batean, Aneri bezala gertatzen zaizu: jada ez zara bat, bi baizik.

Ane haurdun da.

Gezurra zirudien halako sabel lau ta zapal batean bizi baten ernamuina hazteko adina toki egon zitekeela pentsatzea. “Buruan ideia gehiago kabitzen zaizkigu, sabel madarikatu honetan baino”. Horra zer pasatu zitzaion burutik Aneri une hartan, eta zigarroari azken pafadak emanez, lehiora hurbildu eta kalera bota zuen zigarrokina, zeina airetik itzulipurdi batzuk egin ostean, auto baten sabai gainean erori baitzen, artean ere piztuta.

Ane autoari begira geratu zen. Eskua pausatu zuen sabelean. Halako batean, barrez hasi zen, pentsamendutik igarotako “zer izen jarriko diodan” galderari erantzun modura edo.

“Zertarako jarri izen bat?”, pentsatu zuen, “Deituko diot zatoz-hona-mekaguendios-egidazu-kasu-ala-ostiaka akatuko-zaitut!”

Barre egin zuen. Botila koñak ireki berriari heldu zion eta edalontzian tragoska bat isurtzeko imintzio egiten hasia eten egin zuen, oharturik edalontzia zikin-zikin zegoela. Inguruan begiratu eta edalontzi guztiak zikin-zikin zeudela egiaztatu ahal izan zuen ez-nolanahiko frustrazioz, baina halaber indiferentziaz.

“Txakurraren putza”, hots egin zuen larderiatsu.

Amatasuna. Hitz horrek aditzera ematen diguna aberri eder bat izango balitz bezala... ez mundu guztiarentzat baina. Anerentzat ez, behintzat. Egia esan, sabelean zeraman objektu hura “oztopo” bat bailitzan sumatzen zuen. Feto bat edo apo berdexka eta itsusi bat. Berdin-berdin Anerentzat.

“Nor izango ote da aita?”.

Sorbaldak jaso zituen. Botilatik tragoxka luzea zurrupatu zuen. Koñakak eztarrian eragiten zion erredura biziki estimatu zuen, eta une batez pentsatu zuen agian tripara iritsi eta barruko itsuskeria hura erre egingo zuela.

“A, erditzea baino hobea da hau”, esan zuen bere kabutan botilari beste zurrapada bat emanez.

Minutu batzuk gogoetan edo sentsazioetan murgilduta egon ostean, esku-zartada kariñoso batzuk jo zituen bere sabelaldean, baina ohiko jarrera hotzari uko egin gabe. Egia esan, keinu ustez amultsu haren atzean, gehiago zegoen hironiatik, zinismotik... maitasunetik baino.

“Uko egin behar omen dugu beti, guk, emakumeok. Eta gizonak ere berdin. Ez gara horren desberdinak. Iruditzen zaigu baietz, desberdinak garela, baina hori beste gezur bat baino ez da. Gezurrak, mendiak bezain handiak, ekidiezinak, gozoak, ankerrak, urrikalgarriak... Sabelean daramadan munstro higuigarri hauxe bezalakoxea. Jesus! Norena izango ote da? Azken boladan, azkarregi bizi izan naiz. Zer arruntkeria, azkar bizitze hau! Hobe geratu izan banintz gurasoen etxean... Infernu hartan poliki-poliki egosiko nintzen behintzat... hemen, berriz, beste infernu honetan azkar-azkar erretzen ari naiz...”.

Sabelaldean labean erretako oilasko bat zeukala otu zitzaion. Eta barre egin zuen berriro. Haren barrea apur bat higuigarria gertatu zen. Ane bera ere ohartu zen horretaz eta berehala ito zuen barre-algara. Botila gorde zuen armairuan eta segituan gela ordenatzeari ekin zion.

“Festa polita gaur gauean antolatu duguna”.

Besaulkia hankaz gora zegoen bazter batean. Makurtu zuen hura jasotzera baina oso astuna izanik, indar guztiak erabili behar izan zituen. Haurdun dauden emakumeek pisu astunik jaso behar ez zutela gogoratu zitzaion, eta horrek amorru batean jarri zuen, zeinagatik kemen handiz ekin zion lurrean sakabanatutako gauza guztiak jasozeari, eta zenbat eta astunagoak izan, orduan eta plazer handiagoa ematen zion horiek lurretik altxatzea. Areago, saiatu ere egiten zen pultsuka jasotzen, nahiz-eta behar-beharrezkoa izan ez.

Ez zuen maite sabelaldean zeraman gauzaki hura. Etsaia izan balitz, ez ziokeen abegi hoberik egingo. Mundu normaletik kanpo bizi ote zen? edo, beharbada, gazteegia zen oraindik...? Ez, ez hain gazteak. 29 urte badira urteak. Jakin beharra dago 29 urterekin jada nor zaren, zer nahi duzun, zer espero duzun, zer ez duzun espero...

Gela txukuntzen bukatu zuen. Haren etxea kasik esan zitekeen gela bat baino ez zela. Hogeita hamalau metro guztira, eta “espazio infinitu” horretan sukaldea, logela/egongela, bainugela eta... lehia. Gehien gustatzen zitzaion lekua hura zen: leihoa. Han, behintzat, dena zen zabala; han, behintzat, inurri baten pare sentitzen ahal zen, zeren etxe barruan prezeski justu kontrakoa gertatzen baitzen: halako erraldoia zinen, liliputiarrentzako gela batean atxilo.

“Atxilo, horixe da hitza. Horixe da nire umetokian daramadana: kartzelazain bat, ni atxilo edukiko nauena nire egunak amaitu artean. Ez, lagun izugarri hori, zurekoi handi hori, ez zaitut nahi. Utikan. Sentimentalkeriarik ez. Eskua emango banizu, laster lepoa ere hartuko zenidake. Nire ditiak niretzat dira, ez zure egarri asegabe horrentzat. Zer nazka, gainera, esnekien oka-usain gaiztoa uneoro atxikita eramatea nonahira. Zer kiratsa! Ia-ia irudika dezaket. Ez, lagun. Ez kontatu nirekin”.

Besaulkian hondoratu zen, loaren magalean bere pertsona utziz. Ideia izugarriak pasatzen zitzaizkion burutik. Aldiz, lotan geratu baino lehen, irribarre egin zuen. Edo hobeto esan, fetolari egin zion irribarre, bere semeari, bere alabari egin zion irribarre, eta bere sabela bi eskuekin laztanduz, amets eder hartan hondoratzen joan zen, esnatuko zen unearen beldur, ba baitzekien orduan beharrezkoa izango zela errealitate gordinari aurpegi eman eta, abereak nola, barrutik halaxe markatzen zaituzten erabaki horietakoren bat edo beste hartzea...

“Izan ala ez izan, horra gakoa”, otu zitzaion aldarte onez. “Zenbait gauza ez dira sakonegi pentsatu behar; senari jarraituz erabaki baizik. Eta “hau” erabaki horietako bat da. Ikusiko dugu, laztana. Ikusiko dugu, ba...”

Ane oraingoan lo zerraldo geratu zen, eta halako ama birjina begitarte batek hartu zion aurpegi osoa, zinez gogoratzen zuena Errenazimenduaren garaiko Madonnarik ederren, amatarrena.